



Arartekoaren 2019R-1901-18 Ebazpena, 2019ko irailaren 27koa. Horren bitartez, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Sailari gomendatzen zaio foru enplegatu batek ordainsariak emateko egindako eskaera berriz aztertu eta baietsi dezala.

Aurrekariak

1. 2018ko apirilean, Arartekoak (...)en lehenengo kexa jaso zuen; une hartan, Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura zegoen karrerako funtzionario aktiboa zen. Kexan orain arte hainbat alditan egindako kudeaketen berri ematen zuen, bere zerbitzu berean zeuden beste funtzionario batzuekin zituen ordainsari-aldeak konpentsatzeko asmoz; izan ere, haiek ordainsari osagarria bat aitortuta zuten mugikortasun arrazoiengatik. Bere eskaera honela justifikatzen zuen: zerbitzu horretan lanean hasi zenetik, 2014an egindako lekualdatzeen lehiaketa batean parte hartu izanaren ondorioz, beste funtzionario horiek betetako eginkizun berberak betetzen zituela, joan-etorriak barne.

Lehenengo kexa hori izapidetzeko onartu ondoren abiarazitako jardunaren baitan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Saileko diputatuak erakunde honi jakinarazi zion foru agindu bana eman zela (379/2018 Foru Agindua, ekainaren 26koa, ondoren ekainaren 29ko 382/2018 Foru Aginduaren bidez aldatutakoa); horien bidez, interesdunari aitortu zitzaion 2017ko ekainaren 25etik 2018ko ekainaren 24ra produktibitate osagarri bat jaso izana, bai eta enplegu-baldintzaren araudia aplikatuz kalkulatu zitzaion erretiro-prima egokitu izana ere.

2. Lehenengo aitortza horren ondoren, erretiroa hartu aurreko azken urteko jarduera bakarrik aintzat hartu zuena, interesdunak erreklamazio gehiago egin zituen gainerako funtzionarioekin zituen ordainsari-aldeak konpentsatu ziezazkioten zerbitzuan egondako aurreko urteengatik. Erakunde honek ohartarazi zion zegokion administrazio bidea abiarazi behar zuela, eta hala egin zuen. Dena den, foru arduradunek aurkeztutako eskaerei eta erreklamazioei ez zieten kasurik egin, alde batetik, epez kanpokoak zirelako eta, bestetik, erreklamazioaren mamiari dagokionez, bere garaian egindako aitortza (azken 12 hilabeteetan) interesdunak berak eskatutakoaren arabera egin zelako.
3. Foru arduradunen ezezkoak eragin zuen Arartekoak bere jarduna berriz abiaraztea. Hala, erakundeak zenbait balorazio helarazi zizkion Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazio Saileko diputuari; horien bidez, honako hau nabarmendu nahi izan zen:





“Izan ere, ezin da alde batera utzi 379/2018 Foru Agindua, ekainaren 26koa – ondoren 382/2018 Foru Aginduak, ekainaren 29koak, aldatutakoa – irmoa dela. Aitzitik, horrez gain, nabarmendu behar da interesdunaren azken eskaeraren helburua ez dela foru agindu horretan erabakitakoa zalantzan jartzea, baizik eta, azken batean, hura osatzea, (...) Zerbitzuan jardun zuen aldi osoari dagokion ordainsaria parekatuz; izan ere, ziur dago egiazta dezakeela aldi horretan guztian egiteko berdinak bete zituela (izan ere, 379/2018 Foru Agindua eman zenean ere, horixe bera egiaztatu zuen azken 12 hilabetei zegokienean).

Azken hori dela eta, hau da, interesdunak ordainsaria parekatzeko aurreko eskera azken 12 hilabeteetara mugatu izanari dagokionez, esan beharra dugu erakunde honek jakin duela eskaera modu horretan planteatu zela, foru-administrazio horren jarraibideekin bat etorriz. Hala ere, ez dakigu zer arrazoi juridiko dituen oinarri muga horrek, eta interesdunak, azken batean, muga hori gainditu nahi du azken eskaera honekin”.

4. Emandako erantzunean, foru diputatuak erreklamazioa zati batean bakarrik zergatik aitortu zen justifikatu zuen; hala, agerian jarri zuen interesdunaren erreklamazioak borondatezko erretiro-primak eskaerarekin bat zetorrela denboran, eta hori kalkulatzeko aurreko urteko ordainsariak hartzen direla erreferentziatzat (horregatik egin zion iradokizuna foru administrazioak interesdunari azken 12 hilabetei zegokien eskaera aurkez zezan). Horrez gain, azpimarratu nahi izan zuen, jokabide horrek kexagilearen interesa hartu zuela kontuan, aipatzen zen moduan, egindako erreklamazioa aztertu ondoren emandako ebazpena zalantzarikoa zelako.
5. Lehenengo erantzun hau aztertzean, Arartekoak positiboki baloratu zuen foru administrazioak interesdunaren erretiroko baldintzak hobetzeko erakutsitako jarrera. Nolanahi ere, horrek ezin du ekarri –ondorengo gogoetetan azalduko den moduan– ordainsariak emateko eskaeraren zati bat aitortzeko balio izan zuen oinarri juridikoa alde batera uztea, eta ondoren ebazpenaren kontra egitea, zalantzarikoa zela esanez.
6. Nolanahi ere, foru diputatuak aurrez egindako balorazioei eutsi die, erakunde honek ohar horiek egin arren. Ildo horretan, bere azken erantzunean honako hau azpimarratu nahi izan du:

“Aurkeztutako erreklamazioa ebazteko dudazkoa zen eta ohiko egoeretan ukatzekoa izango zen.





Baina planteatutako egoera kontuan hartuta eta garrantzia emanaz, funtsean, interesdunaren borondatezko erretiroari eta zegokion sariaren zenbatekoari, harekin adostu zen zenbateko bat ordaintzea urtebeteko produktibitate gisa, helburu nagusitzat hartuta, eta interesdunak sustatuta eta ados zelarik, haren erretiroan eragin positiboa izatea.

Egoki dirudi jotzea erreklamazioa ezesteak, kontuan izan gabe laster erretiratu behar zela, ez lukeela eramango egun gauden eztabaida puntura, administrazio bideko edo, hala behar izanez gero, bide judizialeko erreklamazio bat garatzera baizik.

Kasu honetan, ulertzen dugu interesdunari kalterik ez sortzeko moduan ekin izanak ekarri duela erakunde honen jarduna baloratzea posizio abusuko modu bat gisa, eta hori ez dela egitateen errealitateari egokitzen deritzogu”.

Gogoetak

1. Ebazpen honen lehenengo aurrekarian azaldu denez, interesdunak ordainsariak konpentsatzeko egindako eskaerak foru diputatuaren lehenengo erabakia ekarri du (ekainaren 26ko 379/2018 Foru Agindua, ondoren ekainaren 29ko 382/2018 Foru Aginduaren bidez aldatua); horren bidez, interesdunari aitortu zion 2017ko ekainaren 25etik 2018ko ekainaren 24ra produktibitate osagarria jaso zuela, eta enplegu-baldintzen araudiaren aplikatuz kalkulatu zen erretiro-proba egokitzen zitzaiola.

Erabaki hori justifikatu zen horri buruz honako hau argudiatuz:

“Según la Relación de Puestos de Trabajo vigente, en el Servicio de (...) existen dos tipos de dotaciones del puesto de (...) (código 1306): las dotaciones 001 y 003 que tienen asignado un complemento específico en cómputo anual de 18.490,05 euros y la dotación 003, a la que está adscrito D. (...), que tiene asignado 17.596,20 euros, resultando una diferencia de 893,85 euros en cómputo anual. Dicha diferencia de retribución viene determinada por la asignación diferente de uno de los factores que se valoran en el complemento específico, en particular, el correspondiente a la peligrosidad o peligrosidad en función de la realización de sus funciones con desplazamientos a las Oficinas Comarcales (...) o sin desplazamientos.

Por parte del Servicio de (...) se ha emitido informe que constata que por necesidades del servicio se han venido realizando las mismas funciones





entre las diferentes dotaciones del puesto de Administrativo código 1306, por lo que debieran haber sido objeto de la misma retribución.

La ley 6/89 de la Función Pública Vasca establece en su artículo 79.1.c) que el complemento de productividad retribuirá el especial rendimiento y la actividad extraordinaria con la que el funcionario desempeña su puesto de trabajo. Asimismo, el Decreto 207/1990, de 20 de julio, de retribuciones de los funcionarios del País Vasco, especifica en su artículo 7.3 establece que “el complemento de productividad podrá considerar entre los criterios para su asignación la homogeneización o equiparación de las retribuciones por el desempeño de un mismo puesto de trabajo”.

Acreditada la identidad en el desempeño de las funciones de D. (...) y de otros funcionarios adscritos al mismo puesto pero en diferentes dotaciones con mayor retribución, procede asignar un complemento de productividad en la cuantía correspondientes a la diferencia en la retribución asignada entre ambas dotaciones, en particular en el complemento específico.” (sic)

Egiaztatu ahal izan denez, zalantzazko irtenbidetzat jo ezin daitekeen eskaera bati erantzuten dion erabakia da. Aitzitik, ordainsariei buruz indarrean dagoen araudia hartzen du oinarri, eta horrek ordainsariak parekatzeko edo konpentsatzeko aukera ematen du, (...) Zerbitzuaren eginkizunak zein diren egiaztatu eta berretsi ondoren.

2. Aitortu behar da interesdun honen ordainsari-eskaera baloratzeko eta ebazteko orduan, foru administrazioak bi aukera zituela, kexaren izapidean azpimarratu nahi izan den moduan: lanpostuaren konfigurazio berri bat proposatu behar izatea edo administrazioaren jardun logikoa benetan egindako joan-etorriengatik dietak ordaintzea zela iriztea. Ziur asko, ohartarazi nahi izan den moduan, bi erabaki horietako bat hartu izan balitz, ez zen eztabaida hau sortuko eta administrazio bidean aurkeztutako erreklamazioaren nondik norakoa, eta agian judizialean ere, beste bat izango zen. Baina ez da benetan hala gertatu foru administrazioak interesdunaren erretiroko baldintzen alde egiten saiatu delako, eta erakunde honek administrazio horrek erakutsitako jokabidea azpimarratzen eta goraiatzen du.

Ekainaren 26ko 379/2018 Foru Aginduan azaldutako oinarri juridikoarekin interesdunari ordainsariak konpentsatzeko erabakia hartu ondoren, erakunde honen ustez ez da egokia aitorten hori jarduera horren azken 12 hilabeteetara mugatzea, eta are gehiago interesdunak, zati bat lehenengo aldiz aitortu ondoren, ordainsariak konpentsatzeko eskaera egiten jarraitu duenean zerbitzuan jardun zuen denbora guztiagatik. Arartekoak uste du, bere esku-hartzean adierazi ahal izan duen moduan, jarduteko modu hori aurretiazko





erabaki horren berri ez izatea dakarrela eta, horrekin batera, kontuan ez hartzea nahitaez bere jarduna zuzendu behar duten fede oinaren eta legezko konfiantzaren printzipioak, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa) 3.1 artikuluan berariaz hala aginduta.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia gogora ekartzeko eta aipatzeko unea da; horren arabera: *“el principio de buena fe protege la confianza legítima que fundadamente se puede haber depositado en el comportamiento ajeno e impone e impone el deber de coherencia en el comportamiento propio”*. Hala ohartarazten da 2010eko abenduaren 22ko Auzitegi Gorenaren epaian (257/2009 errek.), ondoren aipatzen dena 2016ko otsailaren 22ko Auzitegi Gorenaren epaian (4048/2013 errek.); legezko konfiantza behar duten funtsezko hiru betekizunak azaltzen eta zehazten ditu: *“A saber, que se base en signos innegables y externos (1); que las expectativas generadas en el administrado han de ser legítimas (2); y que a conducta final de la Administración resulte contradictoria con los actos anteriores, sea sorprendente e incoherente (3).”*

Erakunde honen aburuz, hizpide dugun kasuan, ekainaren 26ko 379/2018 Foru Aginduak zati bat aitortu izana ezaguna den aurretiazko egintza bat da; horren ondorioz, legezkoa da interesdunak zerbitzuan jardundako gainerako denboragatik jasotako ordainsariak konpentsatzeko eskaera onartzeko duen itxaropena eta, aldi berean, eragiten du foru administrazioak interesdunaren eskaera zalantzazko ebazpentzat jotzeko duen jarrerak aurrez hartu duen erabakiarekin koherentea ez izatea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

(...) foru enplegatuak ordainsariak konpentsatzeko egindako eskaera osoa berriz aztertzea eta baiestea (...) Zerbitzuan jardun zuen denbora guztiagatik.

